

LEHEN HIZKUNTZAREN ERAGINA BIZKAIKO GAZTEEN LEXIKOAREN ERABILERAN

Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria, Urtza Garay eta Asier Romero¹

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola.

Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea

Laburpena:

Ikasleak bariazioaren inguruko kontzientzia linguistikoa izan behar du, baita irakasleak ere; izan ere, hizkuntza estandarraren eta ez estandarraren arteko loturak komunikazio gaitasunaren garapena errazten du. Lan honetan, bariazio lexikoaren inguruko azterketa egin da, eta horretarako, aldakirik garrantzitsuenak agirian jarri dira, lehen hizkuntzaren eragina zehaztu da, eta informatzaileak aldakien arabera taldekatu dira. Giza gorputzaren arlo semantikoa aukeratu eta berrogei informatzaile erabiliz datuak jaso dira. Datuen azterketa aurkezteko, batetik, lehen erabilera azaldu da, eta bestetik, lekuko sailkapena lexikoaren arabera egin da. Hiru sailkapen egin dira lexikoan egon litezkeen ezberdintasunak azaleratzeko, hitzen frekuentzien, lekukoek emandako erantzun doituaren eta multzokatze tekniken arabera. Azkenik, ondorioetan, lehen hizkuntzaren eragina nabarmendu dugu lexikoaren bariazioan.

Resumen:

Tanto el alumnado como el profesorado debe tomar conciencia lingüística sobre la variación, ya que la unión entre la lengua estándar y no estándar facilita el desarrollo de la competencia comunicativa. En este trabajo, se ha estudiado la variación léxica, y para ello, se han mostrado las variantes más significativas, se ha especificado la influencia de la lengua materna y se han agrupado los informantes según la variante. Además, se ha seleccionado el campo semántico del cuerpo humano y se han recogido datos de cuarenta informantes. Para la presentación del análisis de los datos, por una parte, se ha explicado el uso de los lemas, y por otra, se han clasificado los informantes según el léxico. Finalmente, se han realizado tres clasificaciones según las frecuencias de las palabras, las respuestas ponderadas de los informantes y la técnica de agrupación para dar a conocer las diferencias en el léxico. A modo de conclusión, se ha destacado la influencia de la lengua materna en la variación léxica.

1. Sarrera

Azken urteotan hainbat dira gazte hizkeraz egin diren lanak. Lan horietako batzuk orokorrak dira (Esnaola, 1997, 1999; Amunarriz, 2008, 2009; Gaminde, 2010b; Ibarra, 2011). Beste lan

¹ Autoreekiko kontaktua: inaki.gaminde@gmail.com, aintzane.etxebarria@ehu.es, urtza.garay@ehu.es, a.romero@ehu.es.

batzuk hizkuntzaren bilakaeraren eremuan kokatu behar dira (Ariztimuño, 2010; Aurrekoetxea, 2003, 2004, 2006, 2008; Ezenarro, 2008; Gaminde eta Romero, 2011; Gaminde eta lag., 2012; Ormaetxea, 2008, 2009, 2011; Unamuno, 2010; Unamuno eta lag., 2012). Azkenik, badira lan batzuk gazteen datuak aztertzen dituztenak hizkuntzaren esparru mugatuagotan; prosodian (Gaminde, 2010a, 2011; Etxebarria eta lag, 2012), morfosintaxian (Laka eta lag., 2008), diskurtsoan (Ibarra, 2008b) edo lexikoan (Ibarra, 2008a).

Hemen aurkezten dugun lan hau lexikoaren esparruan kokatu behar da. Helburu orokortzat hartu dugu Bizkaiko gazteen lexikoan lehen hizkuntzaren aldagaiak daukan eragina aztertzea.

Bestalde, bariazioaz egin diren lan kuantitatiboetan adina eta generoa izan dira gehien erabili diren aldagaiak (Ariztimuño, 2010; Aurrekoetxea, 2008; Ezenarro, 2008; Gaminde eta Romero, 2011; Gaminde eta lag., 2012; Ormaetxea, 2008; Unamuno, 2010; Unamuno eta lag., 2012). Gure oraingo honetan lexikoaren bariazioa aztertzeko aukeratu dugun aldagai nagusia lekukoaren lehen hizkuntza izan da; izan ere, lehen hizkuntzak lexikoaren ikaskuntzari eragiten diola hainbat lanetan azpimarratu da (Corder, 1967; Johanson, 1973; Norrish, 1983; Richards, 1978; Brown, 1980). Era berean, bariazioa sistemaren ezaugarrietako bat da, eta ikasleak bariazioaren inguruko kontzientzia linguistikoa izan behar du, aniztasun horrek osatzen duelako hizkuntza, eta askoren ustearen aurka, horietako bakoitza ez da hizkuntza bakarra ezta hizkuntza estandarra ere. Era horretan, ikasleek nahiz irakasleek aniztasunaren berri izan behar dute. Fillmorek eta Snowk (2000) egindako lanean irakasle onaren ezaugarriak aipatu zituzten, eta ezinbestekotzat hartu zuten hizkuntza-bariazioa eta kultura aniztasuna kontuan hartzea, diskurtso-ereduak kulturak baldintzatuak izanik, beharrezkoak baitira identifikatzen jakitea ikasleek egiten duten garapena ulertzeko. Cheshirek 2005ean egin zuen ikerketan, hizkuntza estandarren eta ez estandarren arteko loturak komunikazio gaitasunaren garapenean, mesede egiten diela ikasle gazteei ondorioztatu zuen:

“The research indicates, then, that educational programmes that recognise the associations that standard and nonstandard English have for speakers, and that build on these, are more likely to result in children becoming proficient in using standard English than are policies which assume that acquiring the standard language is simply a matter of substituting one variant for another.” (2005: 2349).

Era berean, lexikoaren gainean landu diren ikerketa lerroetan, bai aberastasun lexikoan, bai erazko lexikoan, bai bariazio lexikoan, esparru honek hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzan daukan garrantzia nabarmendu da oso (Haché de Yunén, 1991; García Domínguez, 1994; Valencia, 1997; López Rivero, 2008; besteak beste)

Lan hau, beraz, bide horretan egin beharrekoen lehen pausua besterik ez da, izan ere, zenbait datu ematen dira bariazioa (lexikoaren ikuspuntutik) kontuan hartu nahi duten irakasleentzat. Hurrengo pausua izango da bariazioa ikasgelan sartzeko argibideak emateko lana burutzea.

Lan esparrua mugarrizko arlo semantiko bakarra aukeratu dugu eta beronen barruan lema batzuk. Aukeratu dugun arlo semantikoa giza gorputzarena izan da eta beronen barruan 40 lema aztertuko ditugu. Arlo honetan egon daitekeen bariazioa aztergaitzat hartuta, helburu zehatzak hiru direla esan dezakegu. Alde batetik, arlo honetako bariazioa aztertzean aldakirik garrantzitsuenak agirian jarri nahi dira. Beste alde batetik, bariazioaren antolaketan lehen hizkuntzaren eragina zenbatekoa den aztertu nahi da. Azkenik, informatzaileak eurak taldekatu nahi dira erabiltzen dituzten aldakien arabera.

Lana lau atal nagusitan banatuta aurkezten dugu. Sarrera honen osteko bigarren atalean aztertuko dugun corpora osatzeko erabili dugun metodologia deskribatuko da. Hirugarren atalean datuen azterketa aurkeztuko da. Laugarren atalean, azkenik, ondorioak eta hurrengo lanetarako proposamen batzuk irudikatuko dira.

2. Metodologia


Gure helburuak lortzeko giza gorputzaren arlo semantikoa aukeratu genuen eta beronen barruan 40 lema. Lema hauetako batzuk oso arruntak dira eta, datuen azterketan ikusiko dugun moduan, komuntzat jo daitezke; beste batzuk, ostera, bereziagotzat edo erabilpen murriztuagotzat jo daitezke. Aukeratu ditugun lema 1. taulan ikus daitezke.

aho	bekoki	garia	negar	sorbalda
atzamar	belarri	gibel	oi	sudurra
atzazal	belaun	giltzurrun	oin	txistu
aurpegi	beso	hanka	orainen	ukabil
azal	buru	hezur	orkatila	ukondo
hozpel	esku	hortz	orpo	zain
begi	eskumutur	okotz	txitximurkada	zil
begitxindor	ezpain	mihi	sama	zotin
1. Taula: Aukeratu diren lema				

Corpora osatzeko 40 informatzailerekin jaso ziren datu guztiak. 20 informatzailek gaztelania eduki dute lehen hizkuntzat eta 20 informatzailek euskara. Denak andrazkoak izan dira, 1984-1994 urte artean jaiotakoak, D ereduan ikasketa guztiak burutu dituzte eta gaur egun irakasle

eskolako ikasleak dira. Bizkai osoko informatzaileak aukeratzen ahalegindu gara, horretarako Bizkaia 9 zonaldeetan banatu dugu eta bertako populazio euskaldunaren arabera, aukeratu ditugu informatzaile kopuruak. 2. taulan zonalde bakoitzeko aukeratu ditugun informatzaileak zehazten dira euren lehen hizkuntzaren arabera. Informatzaileak etiketatzeko euren herriaren izena erabili dugu. Bestalde, herri batzuetan informatzaile bat baino gehiago eduki dugunean A (lehen hizkuntza euskara denean) eta B (lehen hizkuntza gaztelania denean) erabili dugu zenbaki batekin (1. mapan inkesta puntu sarea erakusten da).

	L1 euskara	L1 gaztelania
01 Ezkerraldea		Balmaseda, Muskiz, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo, Sestao
02 Bilbo	BilboA1, BilboA2	BilboB1, BilboB2, BilboB3, BilboB4, BilboB5
03 Uribe Kosta		Erandio, GetxoB1, GetxoB2, GetxoB3
04 Mungia Txorierri	Mungia, LarrabetzuA1	LarrabetzuB1
05 Nerbioi		Arrigorriaga, BasauriB1, BasauriB2
06 Arratia	Igorre, Dima, Zeanuri, Zeberio	
07 Durangaldea	Durango, Abadiño, Berriz, Atxondo	
08 Busturialdea	Bermeo, Busturia, GernikaA1, Arratzu, Muxika	GernikaB1
09 Lea Artibai	Lekeitio, Markina, Ondarroa	
2. Taula: Corpusa jasotzeko eduki diren lekukoak lehen hizkuntzaren eta eskualdeen arabera banatuta.		



Corpusa osatzeko itzulpenen metodoa erabili da, hau da, informatzaileari hitzak gaztelaniaz esaten zitzaizkion eta euren itzuli behar izan zituzten. Kasu batzuetan (*sabañón, orzuelo*, e.a.) azaldu behar izan zaie zein den hitzaren esanahia, euren ordaina eman ahal izateko.

Jaso diren erantzunak era askotakoak izan dira. Batzuetan informatzaileek zuzenean ematen dute lemaren itzulpena, beste batzuetan euskal hitz bat iradoki izan zaie (kasu batzuetan aldaki bat baino gehiago proposatu zaizkie), erantzunak era bitara sailkatu dira: zuzenean erantzuten dutenean bi punturekin adierazi da eta ezagutzat edo entzunekotzat jo izan dutenean, berba hori puntu batekin adierazi da. Kasu batzuetan ez dute jakin inolako erantzunik ematen. Irizpide hauen arabera eskala bat osatu dugu: Informatzaileen lemaren itzulpena zuzena denean 3 punturekin doitu dugu, iradokitako berba berberaz erantzun zuzena ematen dutenean puntu birekin doitu dugu, iradoki den berbaz ezagutza pasiboa erakutsi dutenean puntu batekin doitu da eta iradokitako berba ezagutu ez duten kasuan 0 eman diogu.

Sailkapen honen arabera jaso ditugun berba guztiak doitu egin ditugu eta erantzun bakoitza dagokion puntuazio berezituarekin kodetu dugu corpusean. Aldaki fonetikoak ez ditugu kontuan hartu corpusa kodetzean, hau da, “*bekoki*”, “*bekokidxa*”, “*bekokixe*”, e.a. esan diren kasuetan “*bekoki*” hartu dugu sarreratzat. Era honetara, denetara 1600 sarrerako corpusa osatu dugu.

3. Datuen azterketa

Datuen azterketa aurkezteko atal hau azpi-atal bitan banatuta emango dugu; lehen azpi-atalean lehen erabileraz jardungo dugu eta bigarrean lekukoaren sailkapena aurkeztuko dugu erabili dituzten hitzen arabera eginda.

3.1. Lemen erabilera

Gorago esateko moduan 40 lema aukeratu genituen gure ikerketa hau burutzeko (1. taula). Denetara 79 hitz edo aldaki jaso ditugu. Aldakirik gabe erabili diren hitzak 17 izan dira (%42,5) eta aldakiak eduki dituztenak 23 (%57,5). Lemak eduki ditzaketen aldakien arabera 1etik 4rako tartean kokatzen dira.

Bestalde, 24 lema (%60), aldaki batekin edo beste batekin, informatzaile guztiek darabiltzate; alta, 16 lematan (%40) hutsuneak agertzen dira. Hutsuneak aztertzen baditugu, ikusten dugu ezen, L1 euskara daukatenek hutsune gutxiago daukatela L1 gaztelania daukatenek baino (3. taula).

	L1 euskara	L1 gaztelania
Kopurua	37	122
Ehunekoa	4,63	15
3. Taula: Hutsune kopuruak eta portzentajeak lekukoen lehen hizkuntzaren arabera.		

Berben frekuentzia aztertzeko kontuan hartu dugu zenbat informatzailek erabiltzen duten bakoitza eta horren arabera frekuentziak 1etik 4orako ibiltartean kokatzen dira. Behin berben frekuentziak kalkulatu gero, informatzaile bakoitzak frekuentzia orokorrari egiten dion ekarpena kalkulatu dugu. Hau egiteko informatzaile bakoitzeko berba guztien frekuentziak batu ditugu eta zati berba kopurua egin ditugu. Beronen arabera, informatzaileak sailka ditzakegu. Informatzaileen indizeak 27,26 (Markina) eta 33,25 (Muskiz) tartean kokatzen dira. 4 taulan indize horien arabeko sailkapena erakusten da hiru multzotan banatuta.

Ibiltarteak		Lekukoak
1	27,26- 29,26	Markina, Bermeo, BilboA1, Igorre, Ondarroa
2	29,27- 31,26	Zeanuri, Dima, GernikaA1, GernikaB1, BilboB5, BasauriB1, BasauriB2, GetxoB1, GetxoB2, GetxoB3, Abadiño, Arratzu, Zeberio, Berriz, Busturia, Durango, BilboA2, Lekeitio
3	31,27-	LarrabetzuA1, LarrabetzuB1, Muxika, Mungia, Santurtzi, Atxondo,

	33,25	Erandio, Portugaleta, Barakaldo, Arrigorriaga, Sestao, Balmaseda, BilboB1, BilboB2, BilboB3, BilboB4, Muskiz
4. Taula: Lekukoen sailkapena erabiltzen dituzten berben frekuentzien arabera.		

4. taulako datuak aztertzen baditugu, argi agertzen da L1 gaztelania daukatenek indizerik altuenak dauzkatenak.

Lemak eta berben aldakiak aztertzen baditugu, informatzaile guztiek berdin erabiltzen dituztenak (lema guztietan %27,5a) honako hauek dira: “*aho*”, “*aurpegi*”, “*begi*”, “*belarri*”, “*buru*”, “*esku*”, “*ezpain*”, “*hezur*”, “*orkatila*”, “*sudur*” eta “*ukondo*”. Badira hitz batzuk aldaki bakarria daukatenak (guztietan %15a) baina hainbat hutsunerekin, 5. taulan agertu izan zaizkigunak erakusten dira euren portzentajeekin.

Lema	Aldakia
hozpel	hozpel (12,5)
giltzurrun	giltzurrun (97,5)
gibel	gibel (97,5)
belaun	belaun (97,5)
ukabil	ukabil (70)
zain	zain (95)
5. Taula: Aldaki bakarria daukaten lemak.	

Aldaki bi dauzkaten lemak (guztietan %30a) 6. taulan agertzen direnak dira, bertan aldaki bakoitzaren portzentajea ere erakusten da.

Lema	1. Aldakia	2. Aldakia
atzamar	atzamar (97,5)	hatz (2,5)
azal	azal (97,5)	larru (2,5)
begitxindor	begitxindor (50)	txotor (12,5)
bekoki	bekoki (75)	kopeta (25)
beso	beso (97,5)	esku (2,5)
hanka	hanka (97,5)	izter (2,5)
hortz	hortz (32,5)	hagin (67,5)
okotz	okotz (57,5)	kokots (40)
mihi	mihi (77,5)	mihingain (22,5)

oi	oi (15)	entzia (2,5)
orpo	orpo (82,5)	talo (2,5)
sorbald	sorbald (92,5)	lepo (2,5)
6. Taula: Aldaki bi dauzkaten lema.		

7. taulan hiru aldakirekin agertu izan zaizkigun lema agertzen dira euren portzentajeekin batera (guztietan %15a).

Lema	1. Aldakia	2. Aldakia	3. Aldakia
eskumutur	eskumutur (95)	eskutur (2,5)	muñeka (2,5)
negar	malko (70)	negar (22,5)	negar anpulu (7,5)
orainen	lunar (42,5)	orainen (5)	orban (2,5)
txitximurkada	txitximurkada (70)	atximurkada (12,5)	piltxikada (2,5)
txistu	txistu (52,5)	listu (35)	txu (10)
zotin	zotin (60)	txoten (12,5)	hipo (15)
7. Taula: Hiru aldaki dauzkaten lema.			

Azkenik, 8. taulan lau aldaki dauzkaten lema batzen ditugu euren portzentajeekin batera (guztietan %12,5a).

Lema	1. Aldakia	2. Aldakia	3. Aldakia	4. Aldakia
atzazal	atzazal (47,5)	atzazkal (35)	atzazkol (15)	atzamarroskol (2,5)
gari	gari (20)	gario (15)	garitxa (20)	berruga (5)
oin	oin (47,5)	hanka (47,5)	kadera (2,5)	izter (2,5)
sama	sama (42,5)	lepo (47,5)	kokot (7,5)	idun (2,5)
zil	zil (5)	zilbor (47,5)	tripa zil (2,5)	tirrin (45)
8. Taula: Lau aldaki dauzkaten lema.				

3.2. Lekukoen sailkapena lexikoaren arabera


Azpi-atal honetan lekukoak sailkatuko ditugu. Horretarako aldagai nagusia lekukoen ama hizkuntza izango da. Hiru sailkapen egingo ditugu egon litezkeen desberdintasunak azalertzekoan. Batetik, aurreko atalean egin dugun hitzen frekuentzien araberrako sailkapena egingo dugu. Beste

alde batetik, lekukoek eman dituzten erantzun doituaren arabera ere egingo dugu. Azkenik, multzokatze teknikaren erabilta ere sailkatuko dira.

Lekukoek erantzun dituzten hitz bakoitzari hitz horren frekuentzia gehitu diogu eta gero zati emandako erantzunak egin ditugu. Kalkulu honen arabera, aurreko azpi-atalean esaneko moduan, lekukoak 27,26 eta 33,25 indizeen artean kokatzen dira. Lekukoaren lehen hizkuntzaren arabera batez bestekoak eta desbiderapenak kalkulatu baditugu 9. taularen (1. grafikoa) datuak lortzen ditugu (ANOVA azterketa eginda, erlazioa esanguratsua da, $p=0,000$).

	L1 euskara	L2 gaztelania
X	30,271	31,896
Sd	1,294	0,974

9. Taula: Frekuentzien batez bestekoak lekukoaren lehen hizkuntzaren arabera.



Berben pisua doitzeko metodologia atalean aurkeztu dugun sistema aplikatuta, lekuko bakoitzaren puntuazioa lortu dugu. Puntuazio horiek 85tik (Sestao) eta 116rako (BilboA1) ibiltartean kokatzen dira. Desberdintasun horien arabera talde bi egin ditzakegu; alde batetik 85-101 ibiltartean dauden lekukoak eta bestetik 102-116 ibiltartean daudenak. Informatzaileen banaketa 10. taulan erakusten da.


Ibiltartea	Informatzaileak
85-101	Sestao, BilboB2, Balmaseda, Erandio, Arrigorriaga, Muskiz, BilboB5, Santurtzi, Barakaldo, BasauriB2, LarrabetzuB1, BilboB4, GetxoB3,

	Portugalete, GetxoB2, Zeberio, BilboA2, BilboB1, GetxoB1, BasauriB1
102-116	GernikaB1, Bermeo, Berriz, Muxika, Atxondo, BilboB3, Arratzu, Busturia, Mungia, Dima, Lekeitio, GernikaA1, Abadiño, LarrabetzuA1, Ondarroa, Zeanuri, Markina, Durango, Igorre, BilboA1
10. Taula: Informatzaileen banaketa erabiltzen dituzten berba doituen arabera.	

Lekukoen lehen hizkuntzaren arabera batez bestekoak eta desbiderapenak kalkulatu baditugu 11. taulako emaitzak lortzen ditugu (2. grafikoa), ANOVA azterketa eginda aldea esanguratsua da ($p = 0,000$).


	L1 euskara	L2 gaztelania
X	118,6	93,8
Sd	4,489	6,237
11. Taula: Informatzaileen puntuazio doituen batez bestekoak euren lehen hizkuntzaren arabera.		

11. taulan ikusten den moduan, L1 euskara eduki duten informatzaileen artean puntuazioen batez bestekoa 24,8 puntuan altuagoa da, hau da, %20,91a altuagoa.



Azkenik, multzokatze azterketaren teknika erabili dugu lekukoek erabili dituzten aldaki guztien arabera eurak taldekatzeko. Horretarako agertu diren aldaki guztiekin matrize dikotomiko bat sortu dugu. Lekukoen arteko distantzia indizeak kalkulatzeko distantzia euklidearra erabili da eta Cluster 3.0. (2010) programaren bidez sortu dugu multzokatze hierarkikoa. 1. dendograman

ikusten den moduan, GernikaB1 izan ezik, L1 gaztelania eduki duten lekuko guztiak multzo batean kokatzen dira eta L1 euskara eduki dutenak beste batean.



GernikaB1 lekukoaren kasuan ingurune soziolinguistikoak garrantzia eduki dezake, izan ere, bere L1 gaztelania izan arren, L1 euskara eduki dutenen multzo berean kokatzen da. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen Bilboko lekukoekin (BilboA1 eta BilboA2), hauen kasuan ama hizkuntza faktore erabakigarria da multzo batean edo bestean kokatzean; gauza bera gertatzen da LarrabetzuB1 lekukoarekin.

4. Ondorioak eta hurrengo lanak

Azken atal honetan aurreko atalean lortu ditugun ondorio nagusiak laburbiltzen ahaleginduko gara; bestalde, ondorio hauen inplikazio didaktikoez eta hurrengo lanetarako proposamenez ere jardungo dugu.

Argi agertu zaigun lehenbiziko ondorioa da informatzaileek iragartzen duten lexiko bariazioan lehen hizkuntzak eragin handia daukana. Hitzen erabileren frekuentzia hutsen arabera, erabilera doituen arabera zein berben aldakien arabera egin ditugun azterketetan lehen hizkuntzak

multzo nagusi bi osatzeko balio du. Multzo batean L1 gaztelania daukatena agertzen dira eta bestean L1 euskara daukatena.

Ingurunearen ezaugarri soziolinguistikoen eragina bigarren maila batean geratzen da, izan ere, eragin hau kasu baten baino ez da izan erabakigarria informatzaile bat beste multzo batean kokatzeko. Kasu hori GernikaB1 lekukoarena da, berau L1 euskara daukatena multzoan kokatzen da. Haatik, BilboA1, BilboA2 eta LarrabetzuB1 lekuko kasuan lehen hizkuntza da faktorerik garrantzitsua.

Bigarren ondorio nagusi bat izan da agirian jartzea L1 gaztelania daukatena lexiko konpaktuagoa izatea besteek baino. Hau da euren lexikoak aldaki gutxiago dauka. Alabaina, hutsune gehiago dauka L1 euskara daukatena baino.

Badirudi hezkuntzan erabiltzen den lexikoa bertako barietate tradizionalan gorde denetik nahikoa urruntzen dela. Agertu zaizkigun hitz batzuk ez dira errotuta egon herrialdearen orain arteko tradizio linguistikoan. Urruntze horrek informatzaileen artean talde nagusi bi horiek bereiztea dakar, beronek ekar ditzakeen integrazio arazo guztiekin.

Badirudi ezen, bertako tradizioaren eta euskara estandarrenak diren aldakiak baztertzeko joera dagoela, exotikoagoak diren beste batzuen mesedetan. Honek nolabaiteko kontradikzioa islatzen du, izan ere, hiztun komunitatea tinkotu nahi bada, barietate tradizionalak diren hitzak erabiltzea izan daitekeela bideetako bat xede hori lortzeko.

Bestalde, L1 euskara daukatena tradizio zaharreko zein berriko hitzak ezagutzen dituzte eta ondorioz aukera gehiago daukate komunikazioan hain beharrezkoak diren erregistroak bereizteko. Haatik, L1 gaztelania daukatenei erregistro formal eta estandarretako hitzak baino ez irakastea aukerak murrizten zaizkie erregistro ez-formaletan tradizio lexikoa erabiltzeko, beronen ondorioz euren inguruetako hiztun komunitateetan integratzeko bideak eta aukerak ere murriztagoak izango dira.

Hemen aurkeztu dugun lantxo hau entseiarrean egin dugun arren, uste dugu ezen, ikerketa lerro interesgarri batzuk erakuts diezazkigukeela. Alde batetik, honetan sakontzen jarraitzeko beharrezana ikusten dugu; arlo semantiko gehiagotara zabaldu beharko litzateke ikerketa esparrua, laginak handitu, genero, maila sozioekonomikoa eta ikastetxe mota moduko aldagaiekin alderatzeak ondorio interesgarriak ekar ditzakeelako gogorra daukagu. Metodologia arloan datuak jasotzeko beste era batzuk aurreikusten ditugu, era horietako batzuen bidez aberastasun lexikoa ere landu liteke. Azkenik, eredu matematikoak egokitu beharko genituzkeela uste dugu.

Beste alde batetik, ikerketa hauetan lortzen diren ondorioek eta materialek esku hartze didaktiko egokiagoak ahalbidetzeko balio beharko liguketela uste dugu.

Beste alde batetik, mota honetako ikerketek ematen dizkiguten ondorioetan oinarrituta, ikasgelako komunikazio sareak aberasteko bideetako bat izan daiteke bariazioa lantzea, horretarako, baliabide didaktikoak sortu beharra dago, baina behin ikasleen errealitate linguistikoa deskribatuta dagoenean egin beharreko pausutzat hartzen dugu.

Bibliografia

- Amunarriz, K. (2008). Gazte hizkerak - hizkera gazteak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 68 (3) 167-183.
- Amunarriz, K. (2009). XXI. mendeko euskaldunak: Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!. *Transmisinoa eta Erabilerea. XIII. Jardunaldiak*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Ariztimuño, B. (2010). Tolosako eta Ataungo hizkerak: hizkuntz bariazioa eta konbergentzia-joerak. *Uztaro* 72. Bilbo: UEU.
- Aurrekoetxea, G. (2003). Euskalkiak estandarren uholdepean, Arratiako kasua. *Ahozotasuna aztergai*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Aurrekoetxea, G. (2004). Estandar eta dialektoen arteko bateratze-joerak, ikuspuntu teorikotik begirada bat. *Uztaro* 50. Bilbao: UEU.
- Aurrekoetxea, G. (2006). Hizkuntza estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak in J. Lakarra eta J.I. Hualde (arg.), *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R.L. Trask. R.L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritza eta hizkuntzalaritza historikoaz*, ASJU 40, 1-2.
- Aurrekoetxea, G. (2008). Bariazio soziolinguistikoa Dimako euskaran, *Euskalingua* 12. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Brown, H. (1980). *Principles of language learning and teaching*. New Jersey: Englewood Cliffs.
- Cheshire, J. (2005). "Sociolinguistic and mother-tongue education", in Ammon, U., Dittmar, N., Mattheier, K. And Trudgill, P. (eds.), *Sociolinguistic: An Introductory Handbook of the Science of Language and Society* (second edition). Berlin: Mouton de Gruyter, 2341-2350.
- Corder, S. P. (1967). The significance of learners'errors, *International Review of Applied Linguistics*, 5, 4, 161-170.
- Esnaola, I. (1997). Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 24, 63-75.
- Esnaola, I. (1999). *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. Soziolinguistika, Ikerkuntza Koadernoak*. Bilbao: UEU.
- Etxebarria, A., Gaminde, I., Garay, U. eta Romero, A. (2012). Tonuak Gazteen Testu Irakurrietan. *Fontes Linguae Vasconum* 114, 73-91.
- Ezenarro, A. (2008). Etxebarri eta Bolibarko bariazio linguistikoa. *Uztaro* 67. Bilbao: UEU.
- Fillmore, L.W. and Snow C.E. (2000). What Teachers Need to Know about Language, ERIC. Clearinghouse on Languages Linguistics, Special Report: http://www.utpa.edu/dept/curr/ins/faculty_folders/guerrero_m/docs/links/FillmoreSnow2000.pdf (Kontsulta: 02-09-2012).
- Gaminde, I. (2010a). *Bizkaiko gazteen prosodiaz: euskaraz eta gaztelaniaz*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea eta BFA.

- Gaminde, I. (2010b). *Bilboko gazte euskaldunen ezaugarri linguistikoez*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.)
- Gaminde, I. (2011). Noraka Euskal Azentuak? in G. Aurrekoetxea, eta I. Gaminde (koor.), *Prosodiaz eta Hezkuntzaz I. Jardunaldiak / I. Jornadas sobre Prosodia y Educación*. UPV-EHU. (Agertzeko)
- Gaminde, I. eta Romero, A. (2011). Genero eta adina Bermeoko berbaldiaren fonemen eta hotsen frekuentzian, *Fontes Linguae Vasconum* 113.
- Gaminde, I., Romero, A., eta Legarra, H. (2012). *Gramatika eta Hizkuntz Bariazioa Bermeen*. Bermeo: Bermeoko Udala eta Campos Hegaluzea.
- Garay, U., Gaminde, I., Etxebarria, A. eta Romero, A. (2011). Gazte euskaldunek testu irakurrietan egiten dituzten grafema hots korrespondentziaz. *Euskalingua* 19, Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- García Domínguez, M. J. (1994). Estudio de la disponibilidad léxica en Gran Canaria. La variante geográfica y el tipo de educación, *REALE*, 2, 65-72.
- Haché de Yunén, M. (1991). Aportes de las pruebas de riqueza léxica a la enseñanza de la lengua materna in López Morales, H. (ed.) *La enseñanza del español como lengua materna*. Foreign Language Study.
- Hoon, M. J. L., Imoto, S., Nolan, J., Miyano, S. (2010). Open Source Clustering Software. *Bioinformatics*, 20 (9): 1453--1454 (2004).<http://bonsai.hgc.jp/~mdehoon/software/cluster/software.htm#ctv>
- Ibarra, O. (2008a). Sobre estrategias discursivas del lenguaje de los jóvenes vascoparlantes: aspectos pragmáticos y discursivos (conectores y marcadores). *Gramatika jaietan, Patxi Goenagaren omenez*, ASJU-ren gehigarriak, L1, 395-411
- Ibarra, O. (2008b). Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual: léxico, calcos y transferencia lingüística. *Euskal-erromantze Linguistika II Jardunaldiak*, Bilbo.
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Johanson, S. (1973). *The identification and evaluation of errors in foreign languages en Errata*. Papers in Error analysis Svartvik.
- Laka, E., Olondo L. eta Gaminde, I. (2008). Bermeoko gazteen euskararen aditz morfologiaz, *Euskalingua* 13, Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- López Rivero, E. (2008). Estudio de disponibilidad léxica en 43 estudiantes de ELE. Universidad Antonio Nebrija: Departamento de lenguas aplicadas, 1-2.
- Norrish, J. (1983). *Language learners and their errors*. London: Mc. Millan.
- Ormaetxea, J.L. (2008). Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa, *Fontes Linguae Vasconum* 108.
- Ormaetxea, J.L. (2009). Sociolinguistic Variation in Basque Language, *I CLAVE 5* kongresurako.
- Ormaetxea, J.L. (2011) Apparent Time Variation in Basque: Variation in Aramaio and Otxandio, *Dialectologia* 6.
- Richards, J. C. (1978). A non-contrastative approach to error analysis. *ELT*, 25(3), 204-220.
- Unamuno, L. (2010). Adinaren araberako bariazioa Gizaburuagako hizkeran, *Euskalingua* 16. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.

- Unamuno, L., Ensunza, A., Ormaetxea, J. L., Iglesias, A eta Aurrekoetxea, G. (2012). Euskararen bariazio sintaktikoaz lehen datuak, *Euskalingua* 12. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.
- Valencia, A. (1997). Disponibilidad léxica, muestreo y estadísticos. *Onomazein-2*, 197-226
- Zubillaga, H. eta Gaminde, I. (2010). /t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran. *Ikastorratza-3* (1-9): <http://ehu.es/ikastorratza/castellano/numeros> (Kontsulta: 22/09/2012).

Artikulu honen erreferentzia egiteko / Para citar este artículo:

Gaminde, I., Etxebarria, A., Garay, U. & Romero, A. (2012). Lehen hizkuntzaren eragina Bizkaiko gazteen lexikoaren erabileran. *Ikastorratza. e-Revista de Didáctica*, 9,3. Retrieved from http://www.ehu.es/ikastorratza/9_alea/hizkuntza3.pdf (ISSN: 1988-5911).